Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko urriaren 17a, asteartea — 198 — Martes, a 17 de octubre de 2017



## IRUNGO UDALA

### Hirigintza eta Garapen Iraunkerroko Arloa

*Iragarkia*

Udalbatza Txit Gorenak, honako erabaki hauek hartu zituen 2017ko irailaren 27an eginiko Osoko Bilkuran:

«1. Behin betiko onestea 6.2.01 Oñaurre eremuko Plan Partzialaren 3. Aldaketa.

2. Aurreko erabakian aipatutako Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, argitaratu aurretik hirigintza-plangintzako administrazio-erregistroan gordailutu dadin.

Plana indarrean jartzeko ondorioetarako eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 88. artikuluan aurreikusten diren ondorioak izan ditzan, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da behin betiko onetsitako erabakiaren eta hirigintza-arauen eduki osoa, adieraziz aipatutako erregistro horretan gordailutu dela hirigintza-plan hori.

Dagokion lurralde historikoko egunkari hedatuene(t)an argitaratuko da behin betiko onespen-erabakia.

3. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Honen aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auziaren aurretik, hilabeteko epean, honen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta; edo, bestela, zuzenean aurkaratu, Donostiako administrazioarekiko auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, honen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteko aukeraz gainera.

Betiko onartu beharreko Plana bidali egin da Hirigintza Plangintzako Erregistro Administratiboan gordailatzeko.

Hau argitara ematen da ekainaren 30eko 2/2006 Zoru eta Hirigintza Legearen 89. artikuluak jasotako ondorioetarako eta xedatutakoa betetzearren.»

Irun, 2017ko urriaren 5a.—Alkatea, e.o., Hirigintzako teknikaria. (7080)

IRUNGO 6.2.01 OÑAURRE SEKTOREKO PLAN PARTZIALAREN 3. ALDAKETA

E DOKUMENTUA: ORDENANTZA ERREGULATZAILEAK

20. artikulua. A Partzelak (Bizitokiak) eta E Partzelak (Ekipamenduak).

*1. Kalifikazio xehatua.*

AD. Zuzkidura-bizitokia.

EA. Asistentzia Ekipamendu Publikoa.

ED. Kirol Ekipamendu Publikoa.

EE. Eskola Ekipamendu Publikoa.

EP. Eskola Ekipamendu Pribatua.

## AYUNTAMIENTO DE IRUN

### Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible

*Anuncio*

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 27 de septiembre de 2017 acordó.

«1.º Aprobar definitivamente la 3.ª Modificación del Plan Parcial del ámbito 6.2.01 Oñaurre.

2.º Remitir el Plan Especial a que se refiere el acuerdo anterior a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro administrativo de planeamiento urbanístico con carácter previo a su publicación.

A los efectos de la entrada en vigor del plan y para la producción de los efectos previstos en el artículo 88 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, se publicará en el boletín oficial del territorio histórico el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y de las normas urbanísticas, con indicación de haberse producido el depósito del correspondiente plan urbanístico en el citado registro.

El acuerdo de aprobación definitiva se publicará además en el diario o diarios de mayor difusión en el territorio histórico correspondiente.

3.º El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro recurso que considere pertinente.

El Plan objeto de aprobación definitiva ha sido remitido para su depósito al Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

Lo que se publica a los efectos y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 89 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo.»

Irun, a 5 de octubre de 2017.—El alcalde, p.d., la técnico de Urbanismo. (7080)

3.ª MODIFICACIÓN PLAN PARCIAL DEL SECTOR 6.2.01. OÑAURRE (IRUN)

DOCUMENTO E: ORDENANZAS REGULADORAS

Artículo 20. Parcelas A (Alojamientos) y Parcelas E (Equipamientos).

*1. Calificación pormenorizada.*

AD. Alojamiento Dotacional.

EA. Equipamiento Asistencial Público.

ED. Equipamiento Deportivo Público.

EE. Equipamiento Escolar Público.

EP. Equipamiento Escolar Privado.

EK\CV GAO-I-2017-07080

2. *Partzelak eta azalerak.*

Honako hauek dira kalifikazio horiekin definitzen diren partzelen azalera osoak:

— A partzelak: 913,00 m²s.

— E partzelak: 11.291,23 m²s.

Honako hau da ekipamendu kalifikazioarekin definitutako partzela bakoitzerako ezarritako azalera:

— AD. Zuzkidura-bizitokia: 913,00 m²s.

— EA. Asistentzia Ekipamendu Publikoa: 1.068,75 m²s.

— ED. Kirol Ekipamendu Publikoa: 3.445,34 m²s.

— EE. Eskola Ekipamendu Publikoa: 6.180,14 m²s.

— EP. Eskola Ekipamendu Pribatua: 597,00 m²s.

3. *Eraikuntza baldintzak.*

— Baldintza orokorrak:

Partzeletarako ezarritako gehienezko lerrokadurek eta profilek definitutako inguratzaile bolumetrikoaren barnean kokatu beharko dira eraikinak.

— Sestra gaineko Eraikigarritasun Fisikoa:

Honako hau da A partzeletarako (Bizitokiak) eta E partzeletarako (Ekipamenduak) ezarritako sestra gaineko eraikigarritasun fisikoa:

— A. Zuzkidura-bizitokiak: 2.330,00 m²te.

— E. Ekipamendu komunitarioa: 4.710,00 m²te (1).

Bizitoki eta Ekipamendu Komunitario Publikoko partzelen eraikigarritasun fisikoari dagokionez, honako hauek dira eraikitako azalerak:

— AD. Zuzkidura-bizitokia: 2.330,00 m²te.

— EA. Asistentzia Ekipamendua: 1.020,00 m²te.

— ED. Kirol Ekipamendu Publikoa: 0,60 m²te/m²a.

— EE. Eskola Ekipamendu Publikoa: 3.690,00 m²se.

— EP. Eskola Ekipamendu Pribatua: -

— Sestra azpiko Eraikigarritasun Fisikoa:

Honako hau da sestra gaineko berezigarrizko osagarrietarako eta garajetarako erabiltzeko den sestra azpiko eraikigarritasun fisikoa, betiere partzela bakoitzaren erabilera, eta topografia- eta irisgarritasun-baldintzak kontuan hartuta:

— AD. Zuzkidura-bizitokia: 913 m²se.

— EA. Asistentzia Ekipamendua: 1.500 m²se.

— ED. Kirol Ekipamendu Publikoa: 0,60 m²se/m²a.

— EE. Eskola Ekipamendu Publikoa: 3.500 m²se.

— EP. Eskola Ekipamendu Pribatua: -

— Lerrokadurak:

P.6a planoan definitzen dira eraikinen sestra gaineko gehienezko lerrokadurak. Kirol Ekipamendu Pribaturako erabiliko den ED partzelaren kasuan, definitutako partzelaren azalera osoa okupatzea aurreikusten da.

Dokumentu honen dokumentazio grafikoan jasotzen diren 1 eta 2 figurek AD-Zuzkidura-bizitokia partzelari dagozkion lerrokadura maximoak definitzen dituzte.

— Sestrak:

Plangintza honetako planoetan ezarritakora doituko dira bideak eta bizitegi-partzelak urbanizatzeko sestrak, dagokion Urbanizazio Proiektuan ezartzen diren zehaztasunak kontuan hartuz (indarrean dagoena eta gero aldatuko dena, eta, hala badagokio, euskarri izateko balio izango dute, erreferentziazko sestra gisa, eraikinaren altuera neurtzeko).

2. *Parcelas y superficies.*

Las superficies totales de las parcelas definidas con estas calificaciones son las siguientes:

— Parcelas A: 913,00 m²s.

— Parcelas E: 11.291,23 m²s.

La superficie establecida para cada una de las parcelas definidas con la calificación de equipamiento es la siguiente:

— AD. Alojamiento Dotacional: 913,00 m²s.

— EA. Equipamiento Asistencial Público: 1.068,75 m²s.

— ED. Equipamiento Deportivo Público: 3.445,34 m²s.

— EE. Equipamiento Escolar Público: 6.180,14 m²s.

— EP. Equipamiento Escolar Privado: 597,00 m²s.

3. *Condiciones de edificación.*

— Condiciones Generales:

Las edificaciones deberán disponerse en el interior de la envolvente volumétrica definida por las alineaciones máximas y perfiles establecidos para las diferentes parcelas.

— Edificabilidad Física sobre rasante:

La edificabilidad física sobre rasante establecida para la totalidad de las parcelas A (Alojamientos) y E (Equipamientos) es la siguiente:

— A. Alojamiento Dotacional: 2.330,00 m²tc.

— E. Equipamiento Comunitario: 4.710,00 m²tc (1).

En lo que concierne a la edificabilidad física correspondiente a las parcelas de Alojamiento y de Equipamiento Comunitario Público, las superficies construidas son las siguientes:

— AD. Alojamiento Dotacional: 2.330,00 m²tc.

— EA. Equipamiento Asistencial: 1.020,00 m²tc.

— ED. Equipamiento Deportivo Público: 0,60 m²tc/m²s.

— EE. Equipamiento Escolar Público: 3.690,00 m²tc.

— EP. Equipamiento Escolar Privado: -

— Edificabilidad Física bajo rasante:

La edificabilidad física bajo rasante destinada a usos de garaje y auxiliares del característico sobre rasante calculado en todo caso conforme al uso, condicionantes topográficos y de accesibilidad de cada parcela es la siguiente:

— AD. Alojamiento Dotacional: 913 m²tc.

— EA. Equipamiento Asistencial: 1.500 m²tc.

— ED. Equipamiento Deportivo Público: 0,60 m²tc/m²s.

— EE. Equipamiento Escolar Público: 3.500 m²tc.

— EP. Equipamiento Escolar Privado: -

— Alineaciones:

En el plano P.6a se definen las alineaciones máximas sobre rasante de las edificaciones. Para el caso particular de la parcela ED, destinada al Equipamiento Deportivo Público, se contempla la ocupación de la totalidad de la superficie de parcela definida.

Las figuras 1 y 2 contenidas en la documentación gráfica del presente documento, definen las alineaciones máximas correspondientes a la parcela AD-Alojamiento Dotacional.

— Rasantes:

Las rasantes de urbanización de los viarios y de las parcelas residenciales se ajustarán a lo establecido en los planos del presente planeamiento, con las precisiones que se establezcan en el correspondiente Proyecto de Urbanización (el vigente y el futuro a modificar y servirán, en su caso, de apoyo como rasantes de referencia para la medición de la altura de la edificación).

EK\CV GAO-I-2017-07080

Ezin izango dira aldatu erabilera publikoko elementuen funtzionaltasunaren kaltetan, bizitegi-partzeletara sartzeko baldintzak edo funtzionamendua errazteko edo hobetzeko.

Dokumentu honen dokumentazio grafikoan jasotzen diren 1 eta 2 figurek AD-Zuzkidura-bizitokia partzelari dagozkion sestrak definitzen dituzte.

— Perfilak:

Honako hauek dira partzela bakoitzaren perfilak:

— AD. Zuzkidura-bizitokia: PS+PB+3PA+Atikoa.

— EA. Asistentzia Ekipamendua: PS+SS+PB+2PA.

— ED. Kirol Ekipamendu Publikoa: PS+SS.

— EE. Eskola Ekipamendu Publikoa: PS+SS+PB+2PA.

— EP. Eskola Ekipamendu Pribatua: -

Dokumentu honen dokumentazio grafikoan jasotzen diren 3 eta 4 figurek AD-Zuzkidura-bizitokia partzelari dagokion perfila definitzen dute.

— Estalkiak:

Estalki lauko soluzio bat eduki beharko dute eraikin guztiek, malda maximoa % 8tik beherakoa duela. Haren gainean, baimendutako elementu osagarriak jarri ahal izango dira soilik.

— Hegalak:

AD-Zuzkidura-bizitokia partzelaren hego fatxadan bakarrik onartzen dira definitutako lerrokadura maximoen gaineko hegalak.

Hegalak irekiak izango dira; 1,50 metroko hondo maximoarekin definitzen dira, ezarritako fatxadatik aurrera neurtuta, eta goi-solairuetan jarri ahal dira soilik.

Fatxadaren pareko % 100 okupatu ahal izango dute hegalek.

Dokumentu honen dokumentazio grafikoan jasotzen diren 4 eta 5 figurek AD-Zuzkidura-bizitokia partzelari dagozkion hegalak definitzen dituzte.

— Partzela-itxierak:

Gune publikoarekin lotura duten partzela-itxieren obran egindako tarte itsuetarako, 1,00 metroko altuera maximoa definitzen da, eta tarte arinekin konbinatu ahal dira, gehienez, 2,00 metroko altueraraino. Zati itsuak harrizko harresizko akaberaz eraikiko dira, eta ez dira onartuko kalitate gutxiko akaberak, eta berariaz debekatuta daude ageriko hormigoizko blokez egindakoak.

*4. Erabilera eta jabari baldintzak.*

— Baldintza orokorrak:

Ordenantza honetan ezartzen diren zehaztapen berezietara doituko dira ekipamendu komunitarioko partzeletan baimendutako erabilerak eta jabari-baldintzak, eta bat etorriko dira indarrean dagoen Plan Nagusiak ezartzen duenarekin.

— Erabilera-erregimena:

Ekipamendu komunitarioko partzela bakoitzerako, definitutako ekipamenduaren modalitatea ezartzen da erabilera bereizgarri gisa. Beste modalitate batzuk ezarri ahal izango dira ekipamendu erabilera izango duen partzela bakoitzean, baldin eta hasiera batean esleitutako modalitateetan nahikoa zuzkidura-maila dagoela ikusiko balitz eta, gainera, erabilera publikoko edo interes sozialeko nahikoa arrazoi balego.

Indarrean dagoen Plan Nagusiak definitzen dituenak dira definitutako kalifikazio xehatu bakoitzerako baimendutako eta debekatutako erabilerak. Horiez gainera, beste erabilera tertziarioak baimentzea ere kontuan hartu ahal izango da, betiere erabilera bereizgarriarekin bateragarriak eta osagarriak baldin badira. Halaber, garaje-erabilera baimentzea ere kontuan hartuko da, baina soil-soilik erabilera bereizgarriaren osagarri gisa.

No se podrán modificar con deterioro de la funcionalidad de los elementos de uso público, para facilitar o mejorar el funcionamiento o las condiciones de acceso a las parcelas residenciales.

Las figuras 1 y 2 contenidas en la documentación gráfica del presente documento, definen las rasantes correspondientes a la parcela AD-Alojamiento Dotacional.

— Perfiles:

Estos son los perfiles de cada una de las diferentes parcelas:

— AD. Alojamiento Dotacional: PS+PB+3PA+Ático.

— EA. Equipamiento Asistencial: PS+SS+PB+2PA.

— ED. Equipamiento Deportivo Público: PS+SS.

— EE. Equipamiento Escolar Público: PS+SS+PB+2PA.

— EP. Equipamiento Escolar Privado: -

Las figuras 3 y 4 contenidas en la documentación gráfica definen el perfil correspondiente a la parcela AD-Alojamiento Dotacional.

— Cubiertas:

Todas las edificaciones deberán disponer de solución de cubierta plana, con una pendiente máxima menor del 8 %, sobre la que se podrán disponer exclusivamente los elementos auxiliares autorizados.

— Vuelos:

Los vuelos sobre las alineaciones máximas definidas se permiten exclusivamente en la fachada sur de la parcela AD-Alojamiento dotacional.

Los vuelos serán abiertos y se definen con un fondo máximo de 1,50 metros medido a partir de la fachada efectivamente establecida, pudiendo disponerse exclusivamente en las plantas altas.

Los vuelos podrán ocupar el 100 % del frente de fachada.

Las figuras 4 y 5 contenidas en la documentación gráfica definen los vuelos correspondientes a la parcela AD-Alojamiento Dotacional.

— Cierres de Parcela:

Se define una altura máxima de 1,00 metros para los tramos ciegos realizados en obra de los cierres de parcela relacionados con el espacio público, pudiendo combinarse con tramos ligeros hasta una altura máxima total de 2,00 metros. Los tramos ciegos se construirán acabados con muro de piedra, no admitiéndose terminaciones de baja calidad y prohibiéndose de manera expresa las soluciones de bloques de hormigón visto.

*4. Condiciones de uso y dominio.*

— Condiciones Generales:

La implantación de los usos autorizados y las condiciones de dominio en las parcelas de equipamiento comunitario se ajustarán a las determinaciones particulares establecidas en la presente ordenanza y en correspondencia con lo establecido por el Plan General vigente.

— Régimen de Uso:

Para cada una de las parcelas de equipamiento comunitario se establece como uso característico la modalidad del equipamiento definido. Podrán implantarse en cada parcela destinada a equipamiento otras modalidades diferentes si se comprobara el suficiente nivel de dotación en las modalidades inicialmente asignadas y además lo justificaran motivos suficientes de utilidad pública o interés social.

Como usos autorizados y prohibidos se consideran los ya definidos por el Plan General vigente para cada una de las calificaciones pormenorizadas definidas, pudiendo considerarse además la autorización de usos terciarios que pudieran ser compatibles y complementarios del uso característico, así como la disposición del uso de garaje, aunque exclusivamente como uso auxiliar del uso característico.

EK\CV GAO-I-2017-07080

— Jabaria:

AD. Zuzkidura Bizitokia: Publikoa.

EA. Asistentzia Ekipamendua: Publikoa.

ED. Kirol Ekipamendua: Publikoa.

EE. Eskola Ekipamendua: Publikoa.

EE. Eskola Ekipamendua: Pribatua.

— Zortasunak:

Jabari eta erabilera pribatuko zortasuna kontuan hartu beharko da Kirol Ekipamendu Publikoko ED partzelako eraikinean kokatuko den ibiltzeko estalkiaren sestra azpian.

— Garaje-tokiak:

Zuzkidura-bizitokietarako partzelaren barrualdean 100 m²se bakoitzeko toki bat egitea kalkulatu da.

Ekipamendu publikoetarako diren partzela eraikigarrietarako (EA-Asistentzia Ekipamendua eta EE-Eskola Ekipamendua), 50 m²s bakoitzeko toki 1en estandarra kontuan hartu beharko da. Beraz, honako hau da ekipamendu publikoetarako zein pribatuetarako partzela eraikigarrietan aurreikusitako toki-kopurua:

— AD. Zuzkidura Bizitokia: 24 toki.

— EA. Asistentzia Ekipamendua: 30 toki.

— ED. Kirol Ekipamendu Publikoa: Ondoriozko eraikigarritasunaren arabera.

— EE. Eskola Ekipamendu Publikoa: 70 toki.

— EP. Eskola Ekipamendu Pribatua: -

— Dominio:

AD. Alojamiento Dotacional: Público.

EC. Equipamiento Asistencial: Público.

ED. Equipamiento Deportivo: Público.

EE. Equipamiento Escolar: Público.

EP. Equipamiento Escolar: Privado.

— Servidumbres:

Se deberá considerar la servidumbre de dominio y uso privado bajo la rasante de la cubierta transitable a ubicar en la edificación de la parcela ED de Equipamiento Deportivo Público.

— Plazas de Garaje:

La dotación de plazas de aparcamiento considerada en la parcela destinada a alojamientos dotacionales a realizar en su interior ha sido calculada en base a 1 plaza por cada 100 m²tc.

Para las parcelas edificables y destinadas a equipamientos públicos (EA-Equipamiento Asistencial y EE-Equipamiento Escolar) se deberá considerar un estándar de 1 plaza de aparcamiento por cada 50 m²t. Por lo tanto, el número de plazas previsto para las parcelas edificables destinadas a equipamientos tanto públicos como privados es el siguiente:

— AD. Alojamiento Dotacional: 24 plazas.

— EA. Equipamiento Asistencial: 30 plazas.

— ED. Equipamiento Deportivo Público: Según la edificabilidad resultante.

— EE. Equipamiento Escolar Público: 70 plazas.

— EP. Equipamiento Escolar Privado: -